


AGUR, JOXEMIEL BARANDIARAN



Eskola baten sortzailea

ANDER MANTEROLA

Etniker-eko etnologoa

Gizaldi honetan antropologia eta Getnologia gaitan egin denik lanik sakonena eta iraunkorra Barandiaranek egindakoa izan da. Baina lan hori ez du bakarrik egin. Gerra aurrean, erbestean eta gerra ostean taldeak sortu ditu beti Barandiaranek. Gaur egun diren prehistorialaririk ospetsuenak —Jesus Altuna, Ignacio Barandiaran...— bere ikasle izanak dira. Katedrako irakasle baino gehiago, ikerlanetako irakasle zuzenakoa izan zen. Eskola bat sortu



MIKEL DUVERT

Lauburu elkarteko buruzagia

Garai berri bat sortu zuen

Antropologiari dagokionez, Barandiaranen aurreko ikerketak eta 'ondokoak' bereizi beharra izango da. Garai berri bat sortu zuen, Ertarotik jalgi bagina bezala. Barandiaranek funtsezko egitarau zientifiko bat eraiki du, eta honekin metodologia egokituak. Gogoetaldi garrantzitsu bat ere bideratu du. Irakatsi digu nola euskal nortasuna bere baitatik pentsatu, geure buruari begiratzen ikasi digu eta gure kulturaren aztertzerako materialak definitu ditu. Euskal Herri osoaren batasuna egin zuen. Euskal Herriko eremuak gainditzen ditu eta gizadiari begiratzeko bide bat landu du.

du, eta horretan oso balio handia izan du. Bestalde, ez da ahaztu behar bere lana Europako zientzilarik garrantzitsuenekin harremanetan egin zuen. Euskal ikerlaria izan da, baina Europa osoan ezaguna, gehiago lehen orain baino.



Goian, Barandiaranen libururik garrantzitsuenak: 'Euskalerriko leen-gizona' (1934). Behean, RSBA Peko kide izendatu zuteneko irudia, Iruñean egina.




Leizaola eta Dorronsororekin, Ataunen egin zioten omenaldi batean.

Jakintsu apala

IMANOL MURUA

Gipuzkoako diputatu nagusi ohia

Azken urteotan berekin izan dudana harremanetan ezagutu dut, eta zera nabarmenduko nuke: jakintsua zela jakinda —berak oso ondo zekien jakintsua zela—, benetakoa jakintsuaren apaltasuna eta umiltasuna zuela. Gainera, gauza txikiak baloratzen ondo zekien gizona zen: edonoren bisita ohore bezala hartzen zuen, ohorea bisitariarena zenean. Ez da ahaztu behar, bestalde, apaiza zela, nire iritziz apaiz santua, eta kristau izaera gauza guztien gainetik jartzen zuen.




'Honoris Causa' izendatu zuteneko irudia (Bilbo, 1978ko apirila).

Jarraipena izango du bere lanak

FERMIN LEIZAOLA

Aranzadi elkarteko kidea



gaitu harritu gaur —atzo— goizeko bostetan hil delako berria jasotzeak. Nolanahi ere, nik uste dut Barandiaranek, Enrike Eguren eta Telsforo Aranzadirekin batera, 1915ean hasitako lanek jarraipena izango duela, bai etnologian, bai antropologian eta bai aurrehistoriaren ikerkuntzan. Jarraitzaile asko izan du eta jende asko gara, gaur bertan ere, berak erakutsitako bidean lanean ari garenak, Bizkaian, Araban, Nafarroan, Iparraldean, Gipuzkoan, Euskal Herri osoan zehar.



JUAN GARMENDIA

Etnologoa

Inori ez zion laguntzarik ukatzen

Gizon bezala, adiskide bat izan da Gbeti Joxemiel Barandiaran, leiala. Pertsona ona. Denei laguntza esakini eta emateko beti prest. Inori ez zion ukatzen. Etnologiari dagokionez, lan handia utzi digu. Euskal Herrian etnologia gaiak lantzen dituen edozeinek derrigorrezkoa du bere lanetara jo beharra. Gainera oso zabala izan da bere lan etnografikoa, era askotako gaiak landu bait ditu: jaiotza, heriotza, festak, sendagintza, lanabesak... Gainera, jarraitzaile ugari izan ditu eta eskola bat sortu du, eta hori oso garrantzitsua da. Hori ez dute denek lortzen.

ZAKILIXUT

© Olariagak

